

HIZKUNTZ SISTEMA ETA DIALEKTOLOGIA

Karmele ROTAETXE
Euskal Herriko Unibertsitatea

SUMMARY

This paper attempts to demonstrate the relationships between dialectology and general linguistics, and especially, the conditions which linguistics has the right to demand from dialectology, as well as the information which dialectology should be able to offer to general linguistics. Dialectology has limited itself, on too many occasions, to taxonomy: it must take into account the bases and methodology of descriptive linguistics. Only then will it be able of reaching the macro-linguistic level. For theoretical and practical reasons, this paper proposes a new framework for explaining the linguistic system within the General System Theory, although this must not seen as reducing the importance of the notion of variation. According to these terms, the contribution of dialectology to linguistics is indispensable to have a better knowledge of the structure of a language and to understand the way it operates.

RESUME

Cet exposé veut montrer les rapports entre dialectologie et linguistique générale, et en particulier les conditions que la linguistique est en droit d'exiger de la dialectologie, et l'information que la dialectologie devrait être en mesure d'offrir à la linguistique générale. La dialectologie s'est trop souvent cantonnée dans la taxonomie: elle doit prendre en compte les bases et la méthodologie de la linguistique descriptive. Alors seulement elle atteindra le stade du macrolinguistique. On propose ici un nouveau schéma d'explication du système linguistique pour des raisons théoriques et pratiques à partir de la Théorie Générale des Systèmes; la place qu'il faut accorder à la notion de variation n'étant pas la moindre. A ce prix, l'apport de la dialectologie à la linguistique est indispensable pour mieux connaître la structure d'une langue et pour mieux comprendre son fonctionnement.

Kongresu honetarako, Euskaltzaindiak prestatu duen eskemaren Sail baten izenburua hau da: *Dialektologiaren ekarpena Hizkuntzalaritzari*. Ipinita dagoen moduan, izenburu honek ikuspegi bat eskaintzen du; izan ere, badirudi Dialektologiak Linguistikari zeozer dakarkiola, beste gabe.

Hitzaldi hau sail horretan kokatuta dago eta beharrezkoa da, nire uztez, hartuemon horietaz ikuspegi zehatzagoa eta konplexuagoa eskaintzea. Jakin badakigu Dialektologia Hizkuntzalaritzaren adar bat edo azpigai bat dela, zeren inork ez luke sostengatuko Dialektologia, berez, gai autonomoa denik (beste kontu bat da, jakina, atlasgintza eta horretan ez naiz sartuko). Hori delata, argitu behar da non kokatu Dialektologia eta hortik hasiko naiz.

1. Dialektologiaren kokagunea

Orain dela gutxi argitaratutako artikulu batean (ROTAETXE 1990) Hizkuntzalaritza Orokorrak azpiarlo nagusi bi dituela erakutsi dut: Mikrolinguistika eta Makrolinguistika. Lehenengoan hizkuntz-azterketarako Mailak ikasten dira, teoriaren aldetik eta praktikaren aldetik, hau da, Linguistika teorikoa eta Linguistika deskribatzailea ditugu Mikrolinguistikan; batean eta bestean Fonologia, Morfonologia, Morfologia, Joskera eta Semantikaren parte bat bereizten dira. Gai horien helburua ezaguna da eta ez naiz horretaz arduratuko.

Makrolinguistikan, ordea, beste gai mota batzuk ditugu: Fonetika, Pragmatika, interdiziplinarrak diren ikasgaiak, Soziolinguistika, Linguistika Aplikatua adibidez, eta Dialektologia ere arlo honetan legoke. Pentsa daitekeenez, azpiarlo bi hauek badituzte elkar lokarriak, bien artean Linguistika Orokorra osotzeko. Artikulu horretan erakutsi nuen Makroren azpigaiek Mikroren funtsezko oinarri batzuk gorde behar dituztela eta honen metodologiari jarraitu; oinarririk garrantzitsuena oso ezaguna dugu: hizkuntza sistema bat da eta, ondorioz, egitura bat erakusten du. Baldintza hauen pean Makroren ikasgaiak Linguistikaren parteak dira.

Bestalde, badakigu Linguistikak, zientzia guztiak bezala (Matematika, salbu) adostasun enpirikoaren froga bete behar duela. Beste modura esanda, hizkuntz azterketak erabiltzen dituen datuek errealak izan behar dute. Alde horretatik, bistan dago Dialektologiaren ekarpena interesgarria izan daitekeela baldintza batzuenpean. Eta zeintzuk diren baldintza horiek ikusi behar da.

2. Dialektologiaren helburua eta zeregina

Dialektologiaren hastapenak XIX. mendean izan ziren eta bere garapena mende honen hasieran. «Junggramatiker»-ek edo neogramatikoez bultzatu zituzten estudio mota hauek, euren lege fonetikoaren ondorioak egiaztatzeko. Eta, ezaguna denez, ondorioek erakutsi zuten, neogramatikalariren iritziaren aurka, lege horiek ez zirela «itsuak» hitz guztietan era berean betetzen ez zirelako, Hugo SCHUCHARDT-ek 1886ko artikulu famatuan adierazi zuenez

«über die Lautgesetze, Gegen die Junggrammatiker (Lege fonetikoiei buruz, Neogramatikararien aurka)». Beraz, Gramatika historikoarekin (eta bereiziki Fonetika historikoarekin) lotuta jaio zen Dialektologia, eta gramatika historikoaren beharrezko osagaitzat jo zuten gai hori orduko ikertzaileek.

Harrezkero, Dialektologiaren kezkarik handienetariko bat hitzen fonetismoa izan zen (Fonetikaz baliatuz eta ez Fonologiaz, jakina) eta hitzen «bizitza». Lekukotasun bi aipatzeko, hor dugu Frantziako Jules Gilliéron (GILLIERON et ROQUES 1912) hiztegiak, batez ere, arduratzen zena eta Espainian, Ramon Menéndez Pidal, fonetista eta dialektologoa izan zena eta, jakina, gramatika historikoaren ikertzailea. Ikasketa fonetikoaren garrantzia ulertzeko, gomutau behar da garai horretan, 1888an hain zuzen, delako *Association Internationale de Phonétique* (A.P.I.) sortu zela. Eta hitzen bizitzari dagokionez, garai horretako filologo batek, Gaston Paris-ek, alegia, horrela dio: “Chaque mot devrait avoir sa monographie établie avec autant de rigueur que dans les sciences naturelles”. Aipamen honen edukina interesgarria da beste arrazoi bategatik: badirudi Gaston Paris-entzat, orduko filologoentzat legez (Schleicher dugu adibiderik argiena), zientzien eredu zientzia naturaletan topau behar zela; ezaguna denez, dialektologoen iritzia halakoa zen (eta behar bada, oraindino ere bada, batzuen kasuan). Hizkuntzalariorik, ordea, ez genituzke hizkuntz ikastetak zientzia naturaletan sartuko, sozialak direlako.

Dialektologiaren eginbearra dialektoen eta hizkeren datuak edota hatzak (rasgoak) jasotea da, lehenbizi, denboran zehar gonbarazioak ataratzeko, edota beste euskalki baten (edo batzuen) datuekin gonbaratzeko. Gonbarazio honetan datza Dialektologiaren helburua eta helburu hori ez da bat ere arduratzen dialekto edo hizkera bakoitzaren egituraz. Oso sarritan, gainera, Dialektologiak Hizkuntz Geografiak legez hizkuntz datuak interpretatzeko momentuan, kanpoko informazioa hartu du kontutan, irizpide estralinguistiko baliatuz (LACROIX 1969, 220). Argi dago, beraz, Dialektologiaren garapena eta Linguistikarena guztiz aurkakoak izan direla, helburuaren, zeregina- ren eta, jakina, metodologiaren aldetik. Aipatutako idazleak dionez, Dialektologiaren lanak horrela laburtu ahal dira: hitzen zerrenda bat emanda gero, ahaleginak egiten dira korrespondentzia fonetikoak aurkitzeko dialekto desberdinetako hitz zentzukideen unitate fonikoen artean. Zalantza barik, Dialektologiaren estudioak taxonomikoak izan dira, kasurik onenean, eta hiztegi- rera edota fonetikara mugatuak.

Gauzak holan, Dialektologiaren ekarpena interes gutxikoa da Hizkuntzalaritzarako.

3. Hizkuntzalaritzak Dialektologiari eskatzen diona

Linguistikan, hizkuntza eta hizkera guztiak sistemak direla hartzen da abiapundutzat; honek esan nahi du edozein hizkuntzatan, elementu guztiak erlazioztatuta daudela eta Linguistikaren eginbearra erlazio horiek azaltzea

dela. Horregatik esaten da ikasketa linguistiko batek hizkuntz egituraren berri eman behar duela. Funtsezko ideia hau Mikrolinguistikaren atal nagusi biei dagokienez gero (Hizkuntz Teoriari eta Linguistika deskribatzaileari), hizkuntz deskripzioek zenbait baldintza bete behar dute osotasunaren aldetik, koherentziaren aldetik eta ekonomia-aren aldetik. Eta baldintza hauek Dialektologiak bereganatu beharko lituzke Linguistikaren parte izateko. Bestalde, badakigu dialektoen datuak jaso eta gonbaratu behar dituela eta, helburu bikoitz honen aurrean betiko eragozpena ageri da: zelan integratu sistema baten barruan dialektoen aniztasuna eta dialektoen arteko aldakuntza. Prolema horri irtenbide bat emateko Dialektologia adar bat sortu zen.

3.1. Dialektologia estrukturala

Dialektologia estrukturalaren oinarriak Trubetzkoy-ek¹ adierazi zituen 1931an, bere artikulu ospetsu batean: *Phonologie et géographie linguistique*. Egileak aipatzen zuen isoglosak sailkatu behar zirela irizpide fonologikoen bidez, dialektoetako soinuen artean beharrezko hierarkizazioa ager zedin. Sarritan jazoten denez, ideia hauek askoz geroago izan ziren onartuak eta 1954an Uriel Weinreich-ek proposamen bat egin zuen: *Is a Structural Dialectology possible?* (WEINREICH 1954). Joera berri horren abiapundua zera da: dialektoen fenomenoek ikertuak izan behar dute herriko hizkeretako sistemen markoan, hau da, linguistika estrukturalak eskatutako baldintzetan. Horrez gainera, Dialektologia estrukturalak erkatu beharko lituzke hizkera desberdinetako egiturak edo estrukturalak. Proposamen horren osteko zenbait artikulutan, ikertzaileek kezka eta eskaera bera azpimarratu dute: hizkeren sistema ezberdinen artean ematen diren aldeek eta antzekotasunek aipatuak izan behar dute, hizkera horiek duten diasistema ataratzeko.

Joera honi buruz, irizpideak desberdinak eta aurkakoak dira. Esate baterako, lehen aipatu dudana Jean François Lacroix-ren ustez Dialektologia estrukturalaren eginbeharra guztiz egokia da: “La caractéristique essentielle de la recherche dialectologique contemporaine est de se placer dans un cadre théorique résolument et rigoureusement linguistique quels que soient les facteurs externes (géographiques, sociaux..) pris en considération. Ainsi naît peu à peu une dialectologie nouvelle dont on peut espérer qu’elle parviendra à résoudre nombre de questions laissées jusqu’à maintenant en suspens”.

1. Argi utzi behar da *Trubetzkoy* unitateko azken fonema (y grafemaren bidez ordezkatuta dagoena) sarritan glidetzat hartua izan arren eta, euskarazko interpretazioan, bokaltzat (*Trubetzkoy*-k esaten dute batzuk) ez da ez bata, ez bestea. Errusoaren fonemen banaketak azaltzen duenaren arabera, kontsonante frikaria da (VACHEK 1968, 194). Hori dela eta, euskal ergatiboaren morfema eranstea, beharrezkoa da epentesia (*Trubetzkoy*-e-k). Antzekoa dugu euskararen kasua: bokal baten ostean datozen /j/ eta /w/ kontsonanteak dira katean (ikus ROTAETXE 1978, 67-68).

Luis Michelenak (1976) beste era batez ikusten ditu gauzak *La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas* artikulua arabera, behinik behin. Mitxelena-ren iritziz, dialektologiaren inkestarako tekniketan aurrerakada handiak gertatu arren, “uno se atrevería a afirmar que las bases teóricas de la dialectología no han mejorado, ni mucho menos en la misma medida. Así, no se está hoy más cerca que hace cien años por lo que respecta a la definición y medida de la divergencia dialectal” (319. orr.). Eta Dialektologia estrukturalari buruz, horrela dio: “La transcripción de los sonidos sigue siendo fonética y lo fonológico es a lo sumo algo que, en segundo término, se puede extraer de los datos fonéticos. Los rasgos diferenciales se siguen eligiendo por razones de comodidad; se tienen en cuenta rasgos, no sistemas y el léxico, que sigue constituyendo el componente central de los cuestionarios, va orientado hacia lo etnológico, es decir hacia la referencia. No hay teóricos o prácticos del campo semántico entre los dialectólogos o, si los hay, forman una minoría exigua” (320. orr.). Diasistema nozioari dagokionez, bere iritzia ez da hobe: “Los diasistemas, una de las aportaciones del estructuralismo a la comparación interdialectal, se han mostrado después tal como eran: algo que no es ni carne, ni pescado, que no quiere adherirse a la interpretación histórica tradicional pero que tampoco puede mantenerse en el plano sincrónico...”.

Diasistema nozioaren aurkako Mitxelenaren iritzi hau guztiz gogorra da, batez ere kontutan izaten badugu nozio hori erabilia izan zela euskararen batasunerako prozesuan. Hain zuzen ere: *II. Arantzazuko Txostena: Argitzapenak, II, 1. Ze batasun bila galbiltzan/Oinarriak* delako dokumentoan eta II.1.7. Atalean hau irakur daiteke: “Egia da hizkuntza bat sistema dela, eta sistema horren zatiak edo osagarriak ez direla deus sistemaz kanpora. Aitortu beharrean gara, ordea, mamira bagoaz, euskara ez dela oraingoz sistema bat, diasistema bat baizik, eta diasistema horren itxura batera heldu behar dugula, gero mamia batuko baldin badugu” (LARRESORO 1975, 26).

Azken ideia hauek kritikatzeko sartu barik (merezi al du, gaur?) bistan dago kontraesanetik kontraesanera eraman gaituztela goiko lerrook. Horregatik, beste modu batez begiratu beharko diogu arazo honi eta, hasteko, dialektoei buruzko definizio zehatzago bat finkatzen saiatuko gara.

4. Hizkuntza eta dialektoak: hartuemonak

Hizkuntzaren definizioa gerorako utzita, komenigarria da orain zeri deitzen diogun *dialektoa* argitzea. Dialektoaren mugapenak asko izan dira, baina onenatariko bat, nire ustez, Stewart-i zor diogu. Linguista honek hizkuntz barietateak sailkatzeko, zenbait ezaugarri erabiltzen du: *Standardization*, *Autonomy*, *Historicity* eta *Vitality* (STEWART 1968, 537 eta interpretaziorako ROTAETXE 1988, 25-31). Hain zuzen ere, *Autonomia* ezaugarria falta zaion barietatea, horixe da dialektoa. Izan ere, *dialekto* nozioa ez da absolutua, erlatiboa da, beste nozio batekin lotuta dagoelako: *norma* ala *standar* nozioekin,

alegia. Horregatik, dialektoek ez dute autonomiarik eta *heteronomoak* dira. Hau dela ta, goiko akatsa larriago agertzen zaigu. Izan ere, Dialektologiari eskatzen zaiona zera da: ugaritasunaren edo aniztasunaren berri ematea, baina batasun baten barruan.

4.1. Hizkuntzaren barietateak

Egia esateko, akats hori ez dagokio Dialektologiari, hizkuntzari baino. Munduko hizkuntza guztiek barietate mota asko azaltzen dute derrigor: edo euren hitzunak toki ezberdinetan bizi direlako eta, labur esateko, esango dugu barietate hauek diatopikoak direla, edo hizkuntza hori darabilten hitzunek errol sozial ezberdinak bete behar dituztelako (ROTAETXE 1988) eta esango dugu harako barietate horiek diastratikoak direla, edo hitzunak berak estiloz aldatu nahi duelako (barietate diafasikoak) edo komunikatzeko kanal desberdinez baliatzen delako (barietate diamesikoak). Dena dela eta zalantza barik, hizkuntza bizi guztiek barietate mota asko aurkezten dituzte, barietate horiek beharrezkoak izaten zaizkie hitzunei; alde horretatik hizkuntza erreferentzia-multzoa baino ez da (ROTAETXE 1988); munduan, ez dago hizkuntza homogeneorik, hizkuntza artifizialak izan ezik, behar bada. Halan eta guztiz ere, hizkuntza baten bidez, elkarrekin komunikatzen gara hizkuntz komunitate baten barruan. Eta honek esan gura du komunikatzeko sistema bat dugula, barietate ugariak edo -hitz tekniko batez baliatuz- *aldakuntza* (*variation, variation, variación*) izan arren.

Gauzak holan izanez gero, hizkuntz sistema ideia berrikusi behar dugu, derrigor, goian aipatu dugun batasun nozioa zelakoa den zehazteko.

5. Hizkuntz Sistemaz

5.1. Sistema itxia

Ezaguna denez, Saussure-ri (1916) zor diogu nozio hori. Bere *Cours de Linguistique Générale* delakoan nozio hau funtsezkoa da hizkuntz elementuek erlazionatuta egon behar dutela adierazteko; jakina denez, ideia berri hori guztiz emankorra izan zen Linguistikaren gaia edo objektua (*langue vs. parole*) finkatzeko.

Sistemari buruz, funtsezko ezaugarriak aipatu zituen Saussurek: “un système où tout se tient” edo “un système que ne connaît que son ordre propre”. Horrek esan gura du Saussure-ren ustez, hizkuntz sistemak itxia izan behar zuela derrigor (*langue*-ren erlazioak eta ez *parole*-renak) eta horregatik sistematik kanpo (*langue*-ren kanpo) jazoten diren fenomenoetaz Linguistikak ez du arduratu behar, *kanpoko linguistikari* edo “*linguistique externe*”ri dagozkionalako. Argi dago fenomeno horien artean *aldakuntza* dagoenez gero,

Dialektologiarako eta Soziolinguistikarako, adibidez, preminatsua den *aldakuntza*-k ez du Saussure-ren sisteman sartzerik.

Sistemaren ikuspegi horren aurka, geroko abots batzuk altzatu dira eta Coseriu-k, adibidez, bere *Sincronía, diacronía e Historia*-n (1973, 147) holan diosku: “la lengua [...] no es un sistema cerrado, sino abierto”, baina bere ikuspegi honen aldeko arrazoi teorikorik eman gabe. Beste adibide bat emateko Martinet-engandik sortutako *Linguistique Fonctionnelle* eskolak *synchronie dynamique* nozioa onartzean (erreferentziak ugariak dira eta berriena, agian, MARTINET 1990) hizkuntz sistema zabalik dagoela onartzen dute, baina, lehen legez, horretarako arrazoi teorikoak falta dira. Saussurek eskaini zuen hizkuntz sistema oso garrantzitsua izan zen eta da; baina komunikazioa azaltzeko ez du balio eta, Claude Hagège zuzen dago zera dioenean (HAGEGE 1985): “Dans la langue ainsi conçue tout se passe comme si personne ne parlait”.

Arazo horretaz, ikerkuntza-lan batean erakutsi nuen nahiko aspalditik hizkuntz sistema ezin izan daitekeela itxia irekia delako eta izan behar duela (ROTAETXE 1985). Tesi honen alde, orduan eskaini nituen frogak mota bitakoak dira: epistemologiarekin lotuta dauden frogak teorikoak eta frogak praktikakoak. Azken hauek goiko lerroetan ageri dira: hizkuntza denei dagokien aldakuntza erreala izan arren, beraren berri ezin dezakegu eman sistema itxia dela onartuz gero; beraz *a contrariis* arrazoiagatik, irekia dela pentsatu ahal eta behar dugu. Froga teorikoak, oraintxe ikusiko ditugu.

5.2. Sistema irekia

Sistemetz arduratzen den zientzia *Sistemen Teoria Orokorra* deitzen da edo *General System Theory*, edo *Théorie Générale des Systèmes*, edo *Teoría General de Sistemas*. Ezin dut hemen zehatz eta mehatz azaldu horren edukina, baina sistema guztiak bereizten dituzten ezaugarriak komeni da aipatzea:

-sistema guztiak irekiak dira, eta ez dira itxiak (cf, BERTALANFFY 1968) Ingurune batean bizi (eta funtzionatu) behar dutelako, sistema guztiak ingurune horrekin erlazionatuta egon behar dira; sistema multzotzat har daitekeela onartuz, orduan multzo osagaitzat hartu behar da ingurunea (RINCON 1985).

-sistema guztiak dinamikoak izan behar dira eta ez dago sistema estatikorik (BERTALANFFY 1979).

-sistemaren eta multzoaren arteko paralelismoa onarturik, multzo baten azpimultzoak bereizten diren bezalaxe, sistemaren barruan ere azpisisistemak bereizi ahal dira; egia esateko, sistema azpisisistemek eratuta dago, multzoa azpimultzoek eratuta dagoen legez. Aipatutako dinamismoagatik, azpisisistema hauek elkarregintzan (*interaction*) aurkitu behar dute (WALLISER 1977), edo beste era batera esateko, azpisisistemen artean elkar-trukaketak jazoten dira eta jazo behar dute.

-sistemek *helburu* bat lortzeko funtzionatzen dute (RINCON, 1985) eta helburu hori lortzeko sistemaren parteak koordinatuak izan behar dira (CHURCHMAN 1974).

-*elkarregintza* edo interakzioaren fenomeno hauek ematen dira bai sistemaren parteen (azpisisistema) artean eta bai sistemaren eta ingurunearen artean. Hau da, inguruneak sistemari eragiten dio eta sistemak inguneari eragiten dio; horregatik, aipa daiteke elkarregintza edo interakzioa.

-interakzio prozesu horretan elkar trukutzen dena ezberdina izan daiteke sistema moten arabera. Ikertzaile sistemiko batzuek esan dute sistema mota batzuetan trukutzen dena *informazioa* dela. Gure kasuan, ontzat har daiteke *informazio* nozio hori jazoten den elkarregintza mota partikularra azaltzeko. Jazoten dena hau da: gizarteko fenomeno bategatik edo beste bategatik, hau da, *informazio* mota bategatik, hiztunaren portaera aldatu ohi da eta, berba egiteko momentuan, barietate bat ala beste bat aukeratzen du. Argi dago, beraz, ingurunetik etorritako *informazioak* baduela bere eragina hizkuntz sistemaren barruan. Alderantzizko norabidea ere jazoten da: hain zuzen ere hizkuntz sistemaren barruan *informazioa* elaboratzen da (ikus. beheago) eta hortik ingurunera (gizartera) joaten da: esaterako, hizkuntzaren barietate bat edo estilo bat, hizkuntz arrazoiakatik, jatorriago edo prestigioitsuago aurkezten denean, barietate hori erabiltzen duten gizarteko partaideek ere prestigioitsuagoak ageri dira. Norabide bi hauek izendatzeko ikertzaile sistemikoek sortutako terminoak guk ere erabiliko ditugu: ingurunetik sistemara doan eragina *intrantea* izango da eta bestea, *estrantea*.

-sistema hierarkizatuta dago eta, azpisisistema batek sistema osoaren *pilotajea* asumitzen du, kontroleramailea delako (RINCON 1985). Beste era batera esanda, azpimultzo batek zuzendaritza daroa.

Sistemen ezaugarriak interesgarrienak ikusita gero, jakin behar da orain ea hizkuntz sistema batean edo, hobeto esateko, hizkuntz komunikazio-sisteman (H.K.S.) ezaugarri horiek azaltzen diren ala ez, eta baiezkoan, zer modutan.

6. H.K.S. irekia: Ezaugarriak

Hiru puntu nagusi ikutuko dira hemen. Lehenengoz, azaldu behar da zeintzuk diren H.K.S.ren parteak edo azpisisistemak, Sistemen Teoria Orokorren ereduari jarraituz. Horri *egitura* dei egingo diogu eta 6.1. atalean ikusiko da. Bigarrenez, erakutsi beharko da zelan funtzionatzen duen H.K.S.k eta, batez ere, zer hartuemonetan dagoen ingurunearekin. Arazo honetaz 6.2. atalean arduratuko gara. Azkenez, 6.3 partean, H.K.S.ren deskripzioa aurkeztuko dut. Proposatzen dizuedan planteamendu hau zeharo berria da eta, ulermena erraztuteko, transparentzietaz baliatuko naiz (ikus K1 eta K2).

6.1. Egitura

Ingurune batean sartuta dagoen eta ingurune horrekin hartuemonetan dagoen multzotzat har dezakegu Hizkuntz Komunikazio-Sistema. Lehenbiziko erlazio mota hori azpimarratu behar da: gizarterik gabe, ez genuke hizkuntzarik (hizkuntza bizirik, jakina) eta hizkuntzarik gabe ez genuke gizarterik (ezagutzen dugun gizartea, behinik behin). Beste modu batera esanda, gizarteak sortarazten du hizkuntza eta hizkuntzak sortarazten du gizartea: erlazioa dialektikoa da.

Multzo horren barruan, hiru *azpisistema* (AS) mota bereizten dira: batzuk periferikoak eta beste batzuk barnekoagoak. Mota bakoitza izendatzeko subindizeak erabiliko ditut eta cAS -ak izango dira periferikoak (bat baino gehiago bait dira), besteak bAS -a eta aAS -a izanik. Ez da ahaztu behar azpisistema mota ezberdinen bidez, hizkuntz sistema barietate ezberdinen berri eman gura dugula (cf. 6.3.) eta multzo osoaren bidez, hizkuntz sistema osoaren berri. Gauzak holan izanik gero, azpimultzo bakoitzean egiten den hizkuntz elaborazioa ez da bat ere berdina izaten beherago aztertuko denez. Ondoko irudiak erakusten du egoera eta ez da esan beharrik eskema edo bisualizazio baten aurrean gaudela, bere abantailekin eta eragozpenekin (ikus K1).


6.2. Funtzionamendua

Funtzionamendua ulertzeko, gogoan eduki behar da cAS taldekoen eta ingurunearen arteko erlazioa dialektikoa dela eta horrek zera esan gura du:

a) ingurunetik ez dator intranterik, ingurunerantz estranterik ez badoa. Alde horretatik, eremu geografiko bakoitzak informazioa bialtzen dio cAS bati eta honek eremuari (egia esateko, eremu horren hiztunei) informazioa bialtzen dio, hizkuntza erabiltzeko momentuan era batez ala beste batez berba egiteko, hau da, dialekto bat (ala beste bat) edo dialekto baten ezaugarri batzuk (ala beste batzuk) erabiltzeko. Barietate sozialei dagokienez, antzeko elkarregintza jazoten da eta, gizarteko (hau da, ingurune) intranteen arabera, barietate bat ala beste bat aukeratzen dute hiztunek, aukera horri dagokion eremu sozialean erabiltzeko.

b) sistemaren barruan, informazio-mota bat *intrantea* ala *estrantea* den jakiteko, erreferentzia-pundu bat hartu behar da. Gure kasuan azpisistema periferikoetatik hasita (lehenak baitira kronologiaren aldetik) cAS horietatik hurrengo azpimultzorantz irteten den informazioa *estranteak* izango dira cAS -ren ikuspuntutik, bAS -ren ikuspuntutik *intranteak* izan arren. Bistan dago, baina, cAS horiek ere, *intranteak* hartzen dituztela bAS azpisisistematik.

aAS -ri dagokionez, intranteak hartzen ditu bAS -tik eta horri estranteak bialdu, erlazio dialektikoa mantenduz. Azpisistema moten artean, bestalde, ordenazio bat dugu, eta honen arabera, cAS -ek, esaterako, ez diote estranterik bialtzen aAS -ri, ez eta honetatik intranterik hartu ere. Hitz batez, muturretan



K1: SISTEMAREN EGOERA

dauden azpimultzoek ez dute elkar erlazio zuzenik, zeharkakoa eduki arren b AS-ren bitartez. Funtzionamendu hau ondoko transparentzian (ikus K2) ageri da.

6.3. Deskripzioa


6.3.1. c AS

Periferikoak direla eta, ingurunearekin ukipenean daude. Horrek esan gura du azpimultzo hauen (berehala ikusiko dugu bat baino gehiago izan behar) eta ingurunearen arteko elkar-erlazioak estuak direla. Gerorako utziko ditugu c AS-etatik ingurunera doazen estranteak, gure azterketa sistemara mugatzeko. Esan daiteke, orduan, ingurunearen eragina nabari dela hortik etorritako intrante ugarien bidez. Eta egoera hau ez da bat ere harritzekoa. Izan ere, hizkuntzaren barietate bat edo hizkeraren bat c AS motakoa izateko, baldintza nagusi bat bete behar du: inguruneari egokitzeko beharra. Hori dela ta,

gorago esan dugu c AS bat baino gehiago direla: hain zuzen ere, ingurunea aldakorra da geografi parametroen edota eremu sozial ezberdinen arabera. Eta ingurune mota bakoitzari moldatu egiten zaizkio barietateak edo hizkerak. Hauen artean nabarmentzen dira barietate diastratikoak eta diatopikoak. Adibideak ezagunak dira: egokitzeko funtzio hori dialektoek betetzen dute eta, toki konkretu baten hizkera erabiltzean, hiztunak erakusten du bere batak ingurune horri moldatu gura dizkiola. Barietate diastratikoaren artean egiten den aukerari buruz, denok dakigu etxean edo lagunekin ez dugula berba egiten administrazioko bulego batean bezala, *gizarte-eremu* bi ezberdin bi direlako; beraz, Dialektologiaren kasuan legez, Soziolinguistikak aztertzen dituen barietateak eremu sozialei egokitu behar zaizkie. Aipatutako kasuan, barietate biak, bata (-formala) bestea (+formala), c AS-koan izaten badira ere (kasu bietan ingurunearekin ukipenean baitaude) ezberdinak izan behar adostasunaren oinarriagatik. Beraz, erregistro sozialak bakarrik kontutan edukiz, c AS bat baino gehiago dugu. Horrez gainera -eta hau da hemen interesatzen zaiguna batez ere- hiztunok toki geografiko konkretu batzuetan jaio edota bizi gara eta toki horien arabera barietate geografiko bat (dialekto bat edo hizkera bat) dugu bernakularra, hau da, jaiotzez barneratua. Hizkuntzaz hizkuntza, dialektoen (edo hizkeren) kopurua aldakorra izan daiteke, jakina denez, baina ez dago dialekto bariko hizkuntza naturalik. Gauzak holan izanik, azpisisistema hauen kopurua aldakorra da; horregatik, aurkeztutako eskemetan kopuru hori mugatua izan arren, pentsatu behar da halakoa izan behar duela: c_1 AS, c_2 AS, c_3 AS ... c_n AS. Sistema osoaren barruan, azpisisistema hauen kokagunea transparentziak erakutsi du (ikus K1).

Bestalde, c AS-ak azpimultzotzat hartuz gero, *injuntuak* direla aipatu behar da, intersekzioak dituztelako, hau da, elementu amankomunak. Ezaugarri garrantzitsu hau oso argi nabari da dialektoen banaketan: elkar-mugaketarik ez dago, *isoglosak* baino. Jakina denez, Dialektologiak erakutsi du dialektoaren batasuna faltsua dela, gure dialektologorik handiena, Bonaparte Printzea alegia, horretaz ohartu ez bazen ere. Beraz, gure eremuan, azpimultzo injuntuen bidez adierazten dugu barietate diatopikoei dagokien ezaugarri hori (ikus K1).

Inguruneak hartzen dituen intrantei buruz, hitz bi. Azpimultzo hauen hizkerak (edo barietateak) inguruneari eragiten diote estranteen bidez. Honi buruz, gomutau gura dut hizkera edo barietateren batek, zenbait arrazoigatik eta hizkuntz barietate legez, *prestigio*-balioa hartzen badu, balio soziala ere erraz hartzen duela eta bere usuario sozialak, hau da bere hiztunak, prestigio-dun sentitzen dira gizartean, eta prestigioitsu bihurtzen dira besteen aurrean. Hortaz hiztunaren prestigioak gizarteko partaidearen prestigioa dakar. Eta sortzen den erlazioa dialektikoa denez gero, prestigio sozial honek indartu egiten du berriro barietatearen prestigioa. Bide batez, gomutau eragin behar da *prestigio* ezaugarri honetan datzala hain famatua izan den gure artean



K2: AZPISISTEMEN ARTEKO ERLAZIOAK

K= Kontrola
S/I= Sarrera/Irteera
I/E= Intrantea/Estrantea

diglosia nozioa. Fenomeno hau, jakina denez, sistema baten barietateen artean gertatzen da (FERGUSON 1959) edota hizkuntza ezberdinetakoa barietateen artean (FERGUSON 1959; FISHMAN 1967, beste ikertzaile batzuen artean). Kasu batean eta bestean, ondorio bera jazoten da: hiztunek prestigidun hizkera (edo hizkuntza) erabili gura dute gizartearen partaide prestigiotsu sentitzeko.

Hizkuntz komunitatea elebiduna eta diglosikoa denean, c AS motako barietate batzuek, (-formal) ezaugarri dutenek alegia, erraz aurkezten dute hizkuntz ukipenean jazo daitekeen fenomeno bat: *kode trukaketa*. Prozedura honen medio, hiztunak ukipenean dauden hizkuntza biak erabiltzen ditu esaldi berean hizkuntza bakoitzaren erregelari (fonologikoei eta gramatikalei) min egin barik, orain dela gutxi ikerkuntza lan batean erakutsi dudanez (ROTAE-TXE 1991).

Azkenik, ez dira nahastu behar ahozko barietateak eta azpisistema hauen barietateak. Hauetariko batzuk ahozkoak izan arren, idatziak ere izan daitezke: dialekto askok idazkera finkatuta dute eta batzuek literatura ona.

6.3.2. b AS

Azpisistema honi dagokion barietatea (edo hizkera) bakarra da eta intrante mota bi hartzen ditu: c AS-etatik eta a AS-tik; trukez, estranteak bialtzen ditu lehenengoetara eta bigarreneira. Ingurunearekin ukipenik ez dauka eta, c AS-ak baino askoz gutxiago moldatu behar zaie egoera sozialei edota toki geografikoei.

Hori dela ta, b AS-ren helburua oso desberdina da: ingurunearekiko adostasuna izan ordez, hizkera "intelektual" bat eskaintzea da, Praga-ko linguisten terminologiari jarraituz (HAVRANEK 1929) eta honek esan gura du "galbache" baten funtzioa duela. Adibidez, c AS-etatik datozkion intrante ezberdinen arteko aldeak edo diferentziak neutralizatu egiten ditu b AS honek, jatorrizko marka bariko barietate (edo hizkera) amankomunago bat eskaintzeko.

Guzti honek azaltzen du bere barruan egiten den hizkuntz elaborazioaren mota. b AS honetan beste azpisistemetakoa elementuak edota rasgoak aurkitzen dira sarritan. Hiztegian, ugaritasun horrek zentzukideak eman ditzake eta kodifikatuagoak diren hizkuntzaren parteetan (fonologia eta gramatika, alegia) zenbait araturen alternantzia. Hori dela ta, barietate hau erabiltzean, hiztunek aukera handiak izan beharko lituzkete, teoriarik, bai hiztegiaren aldetik eta bai gramatikaren aldetik, baina gauzak ez dira horrela gertatzen posibilitate horiek a AS-ren eraginak murrizten dituelako, beheago ikusiko denez.

b AS-ri dagokion barietatea, ikasia izan daiteke eta izaten da sarritan hiztun askorentzat, a AS-ren intranteek duten indarraren arabera, berehala ikusiko denez. Aldaketa diamesikoari buruz, hau da *ahozko/idatzia*-ren oposizioari

buruz, esan behar da barietate hau ahozko erabileran agertzen bada ere, idazkera landuan aurkitzen dela batez ere.

6.3.3. aAS

Azpisistema honek *pilotajea* edo sistema osoaren *kontrola* darama eta helburu honetan datza bere garrantzia (ikus K2).

Modu bitan ikus daiteke barietate honen hizkuntz edukina. Hitzunaren sistemari begiratzen badiogu, orduan hitzunaren barne-arauak (zein fonologiakoak, zein gramatikalak) kokatzen dira hemen. Beste era batera esanda, hitzuna hizkuntzari buruz duen ezaguera implizitua. Ezaguera horri esker, hitzuna gaitasuna edo kompetentzia du bere hizkuntzaren elementuak (fonologiakoak, gramatikakoak eta hiztegikoak) zeintzuk diren jakiteko eta zeintzuk ez. Era berean, ezaguera horren bidez, hitzuna gauza da bere hizkuntz erreperitorioa -hau da, erabiltzen dituen barietate guztiak- kontrolatzeko. Eta horregatik, “dialektorik txarrena” (batzuen ustez) darabilen hitzuna ere, bere hizkuntza menperatu egiten du, zalantza barik, barneratua duen hizkuntz sistemaren barruan aAS eduki behar duelako.

Beste era batez ikus daiteke aAS -ren edukina. Hizkuntz komunitate batean, normatibizazioaren prozesu bat izan bada, hortik datorren barietatea, hau da *norma esplizitua* (ROTAETXE 1988, 27), azpimultzo honi dagokio. Hain zuzen ere, barietate horren kodifikaziorako arrazoiak ondokoak izaten dira: hitzunei eredu bat eskaintzea eta, Hizkuntz Politika jarrita dagoenean, gonbarazioaren bidez, beste barietate guztiak kontrolatzea. Norma hori, esplizitua izateaz gainera, formala eta bateratzailea denean (*norma*-ren eta *standar*-en aldea ezaugarri hauetan baitatza), orduan aAS -ren intranteak boteretsuak izaten dira eta bAS barietateari gogor eragiten diote. Honen bitartez, gainera, cAS motako barietateei ere heltzen zaizkie intranteak, sistema osoa kontrolatzeko.

Ondorioz, hizkuntz sistema homogeneitaterantz joaten da helburu hori lortzen ez badu ere. Dialektoei dagokienez, halako norma baten eraginak desagiten ditu (*dé-structuration*, Labov-ek dionez; LABOV 1976, 407), prozesu luzeago ala laburrago baten ostean: hasiera batean, barietate hauek prestigioa galtzen dute gizartearen barruan eta apurka-apurka euren hitzunek laga egiten dituzte.

Hori jazoten denean, hizkuntz sistemak barietaterik bizienak -bernakularrak direlako- galtzen ditu eta galtze horrekin, sistema horren usuarioek elkarrengintza mota ugariak baztertu ahal dituzte eta *hizkuntz segurtasuna* (*language security*) galdu. Gauzak holan izanik, azpimultzo honek daroan kontrola zaintzekoa da alde guztietatik.

6.3.4. Hizkuntz Sistema Orokorra

Onartzen badugu hizkuntzak sistemak direla, orduan egokitu behar zaie, duda barik, beste sistema guztiei egokitzen zaien azalpena. Hau da goiko lerroetan egin dudana eta aplikazio horren arabera, argi ikusi da hizkuntza naturalak ez direla ez itxiak, ez eta homogeneousak (beste kontu bat da, jakina, esperantoa eta antzeko hizkuntza artifizialak). Azalpen honek dialektoen aldakuntza hobeto ulertzeko laguntzen du, nire ustez, eta horregatik Dialektologiaren barruan interesgarria izan daiteke. Bistan dago, dena dela, hizkuntza deritzanak barietate asko dituela eta izan behar dituela. Alde horretatik, goiko lerroetan esan denez, hizkuntza naturalak *erreferentzia-multzoak* baino ez dira hiztunontzat.

7. Ondorioak

Hitzaldi honetan Dialektologiak betidanik izan duen prolema, aldakuntzari dagokiona, alegia, azaltzen ahalegindu naiz.

Horretarako, Linguistikaren eta Dialektologiaren arteko erlazioak aztertu ditugu hasieran. Argi geratu da Dialektologiak ekar diezaiokeena Linguistika deskribatzaileari funtsezkoa izan daitekeela, baldintza batzuen pean.

Hori finkatuta gero, aldakuntza hizkuntzari berari dagokiola ikusi da eta ez bakarrik Dialektologiari. Eta horregatik, aldakuntza horren berri eman dugu hizkuntz sistemaren barruan, Sistemen Teoria Orokorraz baliatuz. Proposatutako hizkuntz sistemaren deskripzioa eta funtzionamendua berriak dira eta, dudarik gabe, oraintsu arte onartuak izan direnak baino askoz konplexuagoak eta, agian, gaitzagoak. Baina zientzia guztietako prolema sakonak gaitzak izaten dira aztertzen eta konpontzen. Eta bistan dago prolema sakon hauetariko bat lengoaiarena eta hizkuntzena dugula, konturatzen ez bagara ere, denok hizkuntza bat, gutxienez, menperatzen dugulako, horretarako ahalegin bereizirik egin barik.

Erreferentziak

- ARENS, H., 1976, *La Lingüística. Sus textos y su evolución desde la antigüedad hasta nuestros días* (2 t.), Madrid: Gredos.
- BAXOK, E., 1982, "Hizkuntz geografia", UZEI, *Hizkuntzalaritza/1. Hiztegia*, 215-233, Donostia, Elkar.
- BEDARD, E. et MAURIS, J. , 1983 (éd.), *La Norme linguistique*, Québec: Conseil de la Langue Française et Paris: Le Robert.
- BERTALANFFY, L. von, 1968, *General System Theory*, (frants. itzul. *Théorie Générale des Systèmes*, Paris: Dunod, 1973).
- 1979, *Perspectivas en la Teoría General de Sistemas*, Madrid, Alianza Universidad.
- CHURCHMAN, C.W. , 1974, *Qu'est-ce que l'analyse par les systèmes?*, Paris: Dunod.
- COSERIU, E., 1973, *Sincronía, diacronía e historia*, Madrid: Gredos.
- FERGUSON, Ch., 1959, "Diglossia", *Word* 15: 325-340.

- FISHMAN, J. A., 1967, "Bilingualism with and without Diglossia; Diglossia with and without Bilingualism", in *Journal of Social Issues*, vol. XXIII: 29-38.
- (ed.), 1968, *Readings in the Sociology of Language*, The Hague/Paris, Mouton.
- GARVIN, P., 1983, "Le rôle des linguistes de l'École de Prague dans le développement de la norme tchèque" eta "Appendices", in BEDARD E. et J. MAURAI, 1983.
- GILLIERON, J. et M. ROQUES, 1912, *Etudes de géographie linguistique*, Paris: Librairie Honoré Champion, Editeurs.
- HAGEGE, CI., 1985, *L'homme de paroles*, Paris: Fayard.
- HAVRANEK, B., 1929, "Thèse 3 du Cercle Linguistique de Prague", TCLP, in GARVIN, P., 1983.
- LABOV, W., 1973, *Sociolinguistics Patterns*, (frants. itzulp.: *Sociolinguistique*, Paris: Editions de Minuit, 1976).
- LACROIX, J.F., 1969, "Linguistique géographique et dialectologie", in MARTINET, A., 1969, 215-224.
- LARRESORO, 1975, *Euskara batua zertan den*, Oñati: Edit. Franciscana Aranzazu.
- MARTINET, A., 1969, (sous la dir. de) *La Linguistique-Guide Alphabétique*, Paris: Denoël.
- 1990, "La synchronie dynamique", *La Linguistique* 26, Paris, 90-2, 13-23.
- MICHELENA, L., 1976, "La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas", *Revista Española de Lingüística* 6-2, julio-dicbre. Madrid: Gredos. 309-324
- RINCÓN, J. M., 1985, *Diseño e informatización de los sistemas de información económica*, Bilbao: UPV/EHU.
- ROTAETXE, K., 1978, *Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, Durango ((Bizkaia): L. Zugaza ed.
- 1985, *Lingüística General y Teoría General de Sistemas* (Trabajo de Investigación para Concurso a Cátedras de Universidad), argitaratu barik.
- 1988, *Sociolingüística*, Madrid: Ed. Síntesis.
- 1990, "Microlingüística y Macrolingüística", in *Actas del Congreso de la S.E.L. XX Aniv.: 1069-1079*, Madrid: Gredos.
- 1991, "Description et valeurs pragmatiques de l'alternance basque-espagnol", in EUROPEAN SCIENCE FOUNDATION, 1991, *Network on Code-Switching and Language Contact. Papers for the Workshop of Brussels (nov. 90): 227-251*, ESF, Strasbourg.
- (prentsan), "Principe téléologique, variétés de langues et système linguistique", in *Actes du XVIII Colloque de la Société Internationale de Linguistique Fonctionnelle (Praha, 9/10/12-17)*.
- SAUSSURE, F. de, 1916, *Cours de Linguistique Générale*, Paris, Payot, 1969.
- SCHUCHARDT, H., 1886, "Über die Lantgesetze. Gegen die Junggrammatike" [Lege fonetikoei buruz. Neogramatikararien aurka], in ARENS H., 1976, 481.
- STEWART, W.A., 1968, "A Sociolinguistic Typology for describing National Multilingualism" in FISHMAN, J.A. (ed.), 1968, 531-545.
- VACHEK, J., 1968, "Some remarks on 'Glides' in Phonological Analysis", in *Travaux linguistiques de Prague, 3 (Etudes dédiées au VI^e. Congrès de Slavistes)*: 189-202, Academia, Editions de l'Académie Tchecoslovaque des Sciences et Paris, Librairie C. Klincksieck.
- WALLISER, B., 1977, *Systèmes et modèles*, Paris: Seuil.
- WEINREICH, U., 1954, "Is a Structural Dialectology possible?", *Word* 10, 1954, 388-400.